

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Arlo orokorreko edota zientifikoko informazioa eta dokumentazioa, soilik formatu digitalean sortzen da, geroz eta gehiago. Egoera berri honen bidez, ondare kulturalaren babespenaren kargu diren instituzio kulturelei arazo berri eta premiazkoa agertu zaie: zeintzu elementu gorde behar diren etorkizunerako eta nola jokatu behar den hauen aukeraketa eta zaintza.

Erronka berri hauen jakitun izanik, azken urtetotan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) arteko lankidetzaren bidez, **Euskal Kultur Ondarea digitalizatzeko, babesteko eta zabaltzeko Plan Zuzentzailean** biltzen diren proiektu ezberdinak sustatzeko lan egin da.

Plan honetan, euskal ondare digitalaren berreskurapen, babespen eta zaintzari erantzuna emateko jokoera lerroak edota proposamenak adierazten ziren. Honela, euskal instituzioek bere ondare digitalaren babespena eta hedapena bermatzeko burututako lan handiaren ondorioz, emaitza ezberdinak lortu dira: ondare-funtsei eskainitako laguntzak, Ondarenet proiektua edota euskal liburutegi digitala OAI artxibo batera bihurtzea, besteak beste.

Instituzioen arteko elkarlana oinarrizkoa bada edozein lan arlotan, esparru digitalean, bere ezaugarri bereziak direla eta, derrigorrezkoa bihurtzen da. Izan ere, etengabeko aldaketa teknologikoen, estandarren egokitzeak eta kostu ekonomiko altuek lankidetzara behartzen baitute.

Arantza Arzamendi Sesé
Kultura Ondorearen Zuzendaria

Ondare digitalari buruzko jardunaldiak: berreskurapen, babespen eta zabaltze estrategiak



Pasa den abenduaren 2an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak “Ondare Digitala: berreskurapen, babespen eta zabaltze estrategiak” lemapeko jardunaldia antolatu zuen. Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen eta Luis Collado-k -Espainiarako eta Portugalerako Google Book Search-eko zuzendaria- eta Allan Arvidson-ek -The Royal Library, The National Library of Sweden, Stockholm (Suedia)- parte hartu zuten. Era berean, Liburutegi Zerbitzuak “Ondarenet, euskal webaren artxibategi digitala” aurkeztu zuen Euskadiko profesionalen artean. Ondarenet-ek Euskal Herriko ondare digitala babestu eta hedatu du nahi du. Hau da, euskal gizartearen ikuspegi guztietako jakintzaren edo adierazpenen emaitza diren baliabide elektronikoen multzoa gorde eta zabal-



tzea du helburu. Bere martxan jartzea liburutegi nazional ezberdinek zuzendutako antzeko proiektuen eremuan kokatzen da. Hauen artean, Pandora (Australia), Kulturarw3 (Suedia) edota Padicat (Katalunia) nabarmentzen dira, besteak beste.

Proiektuaren mamia, euskal weba osatzen duten elementu ezberdinak atzematean oinarritzen da. Web, Interneteko baliabideek osatzen dute, bai geldirik daudenek, baita dinamikoek ere (web-orriak, blogak, foroak, irudiak, bideoak, etab.). Helburua, “hibridoa” izango den atzitzea burutzea izango da. Euskal webaren bat-batekoak egingo dira aldizka, eta hauekin batera, euskal kultura eta bizitzarekin loturik dauden gai eta gertakizun aipagarriak buruz aipamena egiten duten url-en bilketa selektiboa burutuko da. Honetaz gain, erabiltzaileek, euren ustetan babesteko eta hedatzeko interesgarriak izan daitezkeen webak proposatzeko aukera izango dute.

Informazioa atzemateko, babesteko eta antolatzeke, Internacional Internet Preservation Consortium (IIPC) erakundeak bermatutako tresnak erabili dira, nazioarteko estandarrak betetzen dituztenak. Hauen bidez, ahalbideratzen da web-orriak bildu (Heritrix), indexatu (Nutch Wax) eta berreskuratzea, erabilerraza den interfaze baten bidez (Wayback eta Wera).


Erabiltzaileak, url eremuan zuzenean kontsultatuz, atzitutako weben inguruko bilaketak burutu ditzake, <http://www.euskadi.net/ondarenet> helbidean eskuragarri dagoen bilaketa formulario bati esker. Testu askeko bilaketa erraz bat egin dezake edota berariaz sortutako aurkibide baten bidez nabigatu dezake. Bilatzaile ezagunenek aurkezten dituzten antzera azaltzen da emaitza, eta denboran zehar atzitutako web ezberdinak bistaratu daitezke.

Orain arte, Ondarenet-ek osasuna, hezkuntza, euskara edota artearekin harremana duten euskal esparruko 22 web atzitu ditu. Helburua zera da: egunegun, alde aurretik aukeratutako 400 url baino gehiagoko fondoa handitzea eta interesaturiko erabiltzaileen iradokizunak onartzea. Hurrengo hauteskunde autonomikoak direla eta bilduma monografikoa egin nahi da. Honetan, alderdi politikoekin, hautagaien blogekin, hiritarren foroekin, instituzioen web guneekin, hauteskundearen emaitzekin, komunikabideekin etab.-ekin harremana duten web baliabideak bilduko dira.



“Liburutegiak topaleku”.

Irakurri 2008



“Liburuak Topaleku” lemapean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2008ko Irakurri kanpaina aurkeztu zuen. Liburutegiak EAEn bizi diren kultura ezberdinen arteko integrazioarako gune gisa bultzatu nahi dira, berdintasuna, tolerantzia eta aniztasuna bezalako balioak sustatuz.

Helburua zen liburutegi-zerbitzuak etorkinen kolektibo guztien premia eta interesetara egokitzeko esku-hartze programa diseinatzea, hauek gizartera daitezzen lortzeko helburuarekin.

Kulturaren Euskal Planaren “Liburutegiak eta Kultura-aniztasuna” programaren barnean sartzen da proiektu hau. Kulturaren Euskal Plana erakundeen artekoa da, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatua Aldundi, Udal eta Euskadiko kulturaren beste sektore batzuekin elkarlanean. Kanpaina hau prestatzerakoan, Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak, Kultura arteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako

Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroak (Biltzen), Inmigrazio Behatokiak (Ikuspegi), eta Arabako Foru Aldundiko, Bilboko, Ermuako edo Zarautzeko liburutegiteknikariek parte hartu dute.

Kanpainari urriaren 24an eman zitzaion hasiera, Liburutegien Nazioarteko Egunean, eta EAEko 18 liburutegitan abian jarri zen: Bilbo, Gasteiz eta beste hainbat udalerritan: Agurain, Arrigorriaga, Basauri, Bermeo, Bergara, Durango, Eibar, Elgoibar, Erandio, Ermua, Errenteria, Getxo, Irun, Leioa, Markina eta Zarautzen. Hala ere, kanpaina honetarako diseinaturiko material guztiak (Iraia Oikana irudigileak egindako eta kanpainaren gaia biltzen duen kartela, orri-markagailuak, eranskailuak, zerbitzu-gida, irakurketa-gida eta abar) Irakurketa Publikoko Sarean bilduriko liburutegi guztietan banatu ziren.

Honako beste materiale hauek ere nabarmentzen dira kanpainen:

Irakurketa-gida: Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak eta Euskadiko udal liburutegiek, integrazio kulturalerako gune bezala indartu nahi izan dituzte liburutegiak. Honetarako, “Haiena, gurea: tolerantziarako irakurketa” izenburuko gida landu dute. 50 lan baino gehiago hautatu dira, berdintasunari, tolerantziari eta aniztasunari buruzko narrazio eta ipuinak, liburutegietako erabiltzaileei zuzendurikoak (bertakoak zein etorkinak). Bidenabar, egokia da gida hau ikastetxeetako ikasleen artean kultura-aniztasuneko gaiak lantzeko.

Zerbitzu-gida: “Hurbildu” izeneko gida bederlatzi hizkuntzatan idatzi da (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, portuguesa, errumaniera, errusiera, arabiera eta txinera) eta Euskadi liburutegi publikoetan esakintzen diren zerbitzu eta jarduerak azaltzen ditu. Liburutegi-zerbitzuak etorkinen kolektiboetara helaraztea ahalbideratuko du, zerbitzu horien nondik norakoak azaltzeko eginkizunean.

Patua zure eskuetan: 12-16 urte bitarteko gazteentzat, Joan Antoni Espasa Rodríguez idazleak dinamizatutako ipuin lehiaketa bat antolatu zen web-orrian. Orotara, banakako mailan 248 kontakizun jaso ziren: 144 gazteleraz eta 104 euskaraz.

Bideoa: Kanpainaren osagarri gisa, bideo bat egin da etorkinen kolektiboen artean hedatzeko. Hauek, liburutegietan zeintzu zerbitzu aurkitu daitezkeen jakin dezaten. Bideoa, Ermua, San Francisco (Bilbo) eta Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko liburutegian filmatu da.



“Bularretik mintzora” kanpaina

Haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dagoen ekimena da. Bere helburu nagusia da 0-6 urte adin tarteko haurren irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin. Azken finean, **etxean, eskolan, eta liburutegian** giro irakurle bat sortzeko bideak jorratu eta modu natural batean irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatu.

Egitasmo hau erabat berria da Euskal Herrian. AEBetan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egindako antzeko egitasmoen ildo berean dago. Eta kanpaina **sistematizatu** bat izateko bokazioz jaio da.

Ekimen guzti hauek **haurren osasuna kontzeptu orokor gisa** hartzen dute kontuan. Pertsona nagusiaren, liburuaren eta umearen artean **giro afektiboa** sortu nahi da, **emozioen eta hizkuntzaren bidez elikatzen dena**.

Kanpaina honek hiru egoitza ditu. Hiruretarako formazio aukerak eta material sailkatua diseinatu ditugu:

- **Etxean:** gurasoekin eta haurren zaintzaileekin: gomendio serenad bat, bibliografia egoki bat, nola

irakurri, erakutsi eta kontatzeko ikastaroak liburutegian, eta maileguan eramateko liburuz beteriko maletak.

- **Eskoletan:** bibliografia egokia, gomendio zerrenda bat, eguneroko curriculumean haur literatura sistematizatzen jakiteko ikastaroak.
- **Liburutegian:** formazio saioak, bibliografia egokia, maileguan estera eta eskoletara eramane daitezkeen liburu maletak.




Ekimen hau, Tolosako Haur Liburutegian burutu zuen lehen aldiz Galtzagorrik 2007ko abenduan, eta Iurreta, Ermua, Amurrio eta Oñatiko udal liburutegiekin jarraitu zuen 2008an.

Bestetik, aipatu beharra dago, datozen hilabeteetan era askotako infomazioa bilduko duen web-orria sortuko dela. Artikulu erakargarriak, gomendatutako ekimenak, ikastaroei buruzko informazioa, era askotako materiala, helbide interesgarriak...Era berean, jendearen proposamenak eta iradokizunak jasotzeko bloga sortuko da.

ELSNren on line katalogoak (www.katalogoak.euskadi.net/katalogobateratua) lau urte bete ditu 2008an. Egun, Euskal Autonomia Erkidegoan banatutako 202 zerbitzu-puntuk osatzen dute katalogoa. Hauek, 378.000 erabiltzaleei eskaintzen diete Zerbitzua –euskal biztanleriaren %17,7a-. Erabiltzaileek, halaber, hiru milioi ale baino gehiago mailegatzeko eta kontsultatzeko aukera dute. 2008. urtean, aurrekoetan bezala, adierazle garrantzitsu gehienetan hazkunde iraunkorra eman da. Honela, bilduma 250.000 aletan gehitu da, 36.986 irakurle berriei eman zaie alta eta 1.800.000 mailegu gauzatu dira. Era berean, teknologia berrien erabilera finkatuz joan da. Izan ere, erabiltzaileek geroz eta gehiago erabili izan dituzte on line zerbitzuak, fondoetara eta ELSNk eskaintzen dituen aukera ezberdinetara jotzeko. Datu hau, OPAC-en bidez egin diren milioitik gorako kontsulten bidez egiaztatzen da –2007an baino %13a gehiago-.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 |
|-----------------------------------|---------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Irakurleak guztira | 204.567 | 258.812 | 303.866 | 341.004 | 377.991 |
| Alta eman duten irakurleak | 26.692 | 54.245 | 45.054 | 37.138 | 36.986 |
| Maileguak | 306.902 | 1.107.190 | 1.401.101 | 1.616.882 | 1.785.623 |
| Kontsultak OPAC-en | 216.755 | 463.616 | 690.892 | 943.506 | 1.066.957 |

Irakurleak guztira





Katalogazio Arauak

Izenburua: Katalogazio arauak
(Normas de catalogación)

Egilea: Talde

Hizkuntza: Euskera

Orrialde kopurua: 641

Argitalpen data: 2008ko Apirila

Katalogazio arauak euskal liburutegietako profesional eta erabiltzaileek euskarazko bibliografia katalogoak prestatzeko tresna da. Honen bidez, euskararen erabilera normalizatzea bilatzen da katalogo bibliografikoak sortzerako unean.

Liburu hau posible izan da Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegi arloko erakunde, elkarte eta liburutegi esanguratsuenetakoen liburuzainei esker. Era berean, aipatzeko da ere IVApeko Itzulpengintza Zerbitzu Ofizialeko ardudadunen parte-hartzea.

Argitalpen honek, euskarazko dokumentuen katalogazioa egiteko araudi ofiziala jasotzen du eta formatu digitalean kontsultatu daiteke ere: Katalogazio arauak (pdf, 8443 kb-http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-4879/eu/contenidos/informacion/katalogazio_arauak/eu_arauak/adjuntos/katalogazio_arauak.pdf).

Helduentzako liburuak

Gaztelaniaz

La catedral del mar / Ildfonso Falcones

La brecha / Toti Martínez de Lezea

Todo bajo el cielo / Matilde Asensi

Euskaraz

Pijama marradunaz jantzitako mutikoa / John Boyne

SPrako tranvia / Unai Elorriaga

Zu bezain ahul / Karmele Jaio

Haurrentzako liburuak

Gaztelaniaz

Leoleo

Harry Potter y las reliquias de la muerte / J.K. Rowling

Todo Mortadelo y Filemón / F. Ibáñez

Euskaraz

Bubuk ez du lorik egin nahi / Cyril Hahn

Lotarako Disney istorioak

Txomin komunean / Liesbet Slegers

Helduentzako diskoak

Gaztelaniaz

Con otro aire / Chambao

La vida es un ratico / Juanes

Personas / El Canto del Loco

Euskaraz

The singles gaztea

40 urtez ikasten egonak / Benito Lertxundi

Anek idatzi dit zutaz / Mikel Urdangarin

Haurrentzako diskoak

Gaztelaniaz

1 2 3, las tres mellizas

Cuentos clásicos de los Hermanos Grimm

A mis niños de 30 años / Miliki

Euskaraz

Eskerrik asko! / Pirritix eta Porrotx

Mari Motots / Pirritix eta Porrotx

Maite zaitut / Pirritix eta Porrotx

Haurrentzako bideoak

Gaztelaniaz

Erase una vez el cuerpo humano

Caillou y sus amigos

Caillou el explorador

Euskaraz

Triki, traka, tron

Hartz Txiki : 9 abentura

Kkura Bikura eta Lakirik

Helduentzako bideoak

Gaztelaniaz

Grandes enigmas de la historia

Diarios de motocicleta

El orfanato

Euskaraz

Kutsidazu bidea, Ixabel

Aupa Etxebeste!

Martin



Urriaren 24an, Liburutegiaren nazioarteko egunean, Muskizko Liburutegi berria inauguratu zen

Muskizko liburutegia ireki zenetik (1987) igaro diren 21 urte hauetan, gizartearen informazio eta aisia beharrak garatuz joan dira eta nahiz eta liburutegi zerbitzuak hauetara egokitu, hasierako instalazioek sakoneko eraberritzea behar izan dute. Honela, errealitate sozial berraren azterketa burutu ondoren, Muskizko Udalak liburutegiaren berritzeari ekin dio, bai itxura fisikoari dagokionez baita erabiltzaileei eskaini nahi zaien zerbitzuaren filosofiari dagokionez.

Aldaketarik nabariena lekualdaketari dagokio. Izan ere, Kultur Etxeko lehenengoko solairutik bigarrenera tokialdatu da; 140 metro karratutik, ia 450 metro karratu izatera pasatu da, alegia. Espazio berria, erabiltzaile guztiak eroso sentitu daitezzen belaunaldi ezberdinen arteko ingurune gisa antolatu da. Informazio eta aisia behar ezberdinei erantzuna emateko berariazko gune ezberdinak antolatu dira: erabiltzailearentzako arreta, haurrentzako gela, irakurketa eta aisia gela, multimedia/Internet, funts bibliografikoen gunea, taldeka lanean aritzeko gunea eta ikasketa gunea.

Multimedia/Internet deritzon gunean, erabiltzaileek cd edota dvd-ak aurkitzeaz gain, lan ofimatikoak burutzeko ordenagailuak izango dituzte. Era berean, aipatu beharra dago eraikin guztiak wifi irekia duela eta erabiltzaileei ordenagailu eramangarriak erabiltzeko aukera eskaintzen diela, nahi duten lekuan erabili ditzaten. Hauetariko batekin aritzeko baldintza bakarra liburutegiko erabiltzaile-txartela aurkeztea da. Honela, software askearen aldeko apostu irmoa egin da, sistema eragilea zein pakete ofimatikoak banaketa askekoak baitira.

Honekin batera, web sozialaren zerbitzuen sorkuntzan eta banaketan, estatuan erreferentia den gune birtual aitzindaria du (www.muskiz-liburutegia.org).

- 2008 geroztik, on line sareko liburutegien erabiltzaileek beste bi baliabide elektronikoko berri dituzte: OCENET SALUS eta OCENET AULA PADRES, Opac-ean (Nire Liburutegia) kontsultatu dezaketelarik, erabiltzaile gisa identifikatu ostean.
- 2009. urtean aplikazio berri bat ezarriko da (aquabrowser). Honen bidez, bilaketa intuitiboagoak egin ahal izango dira, erabiltzaileek Internet-en egiten dituztenak bezalakoak.
- Euskal liburutegi digitala OAI bilduma bihurtuko da, dituen edota etorkizunean gehitzen diren erregistro bibliografiko guztietara metadatu berriak erantsiz.
- Liburutegi Zerbitzuak web orria berritu du, eduki berriak eskainiz eta hauen aurkezpena hobetuz bai herritarrekiko zein informazioaren profesionalakiko.



Euskal liburutegietan txartel bakarrerantz

On-line sareak eskaintzen duen abantailarik garrantzitsuenetarikoa Euskal Autonomia Erkidegoan banaturik dauden 206 liburutegietan txartel bakarra erabiltzearena da.

Liburutegi Zerbitzutik, 2005 geroztik, Izenperen (herritar zerbitzuak dituen txartel elektronikoa) ezarpena bultzatu zen liburutegiko txartel modura. Egun, ONA delakoak beteko luke funtzio hau.

Argi dago, herritar gehienek, ONA osasun arloko beharretarako eskatzen dutela. Hala ere, kontutan izan behar da geroz eta udal gehiago bat egiten ari direla ONAren bidez eskuragarri dauden zerbitzuekin.

2008an, "Ignacio Aldecoa", Arabako Foru Aldundiko liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuetarako erabilgarritzat onartu du ONA txartela.

2009rako, berriz, Koldo Mitxelena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Liburutegiaren irakurle txartela izango da ONA. Honen bidez, eta etorkizun laburrera begira, euskal liburutegi guztietan txartel bakarra izateko beste pausu esanguratsu bat eman da.



Kongresuetan parte hartzea

"Bibliotecas plurales" lemapean irailaren 24, 25 eta 26an A Coruña n egin zen IV Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas biltzarrean hauek partu hartu zuten:

1. Añadiendo contenido a través de la comunidad virtual: los proyectos LIT y Bateginik, Ibon Idoiak aurkeztuta. Leioako Udal Liburutegia.
2. El futuro no está fuera de alcance: tendencias, transformaciones La Red de Bibliotecas Municipales de Donostia San Sebastián año 2008: su modelo de gestión, sus proyectos cooperativos, Arantza Urkiak aurkeztuta. Donostiako Udal Liburutegi Publikoen sarea.
3. La web es divertida y la utilizo como me apetece: una introducción pedestre a la web social, Fernando Juárezek aurkeztua. Muskizko Udal Liburutegia.
4. Gestión cooperativa de las publicaciones seriadas en la Red de Lectura Pública de Euskadi, Lola Martínez Fernándezek aurkeztuta. Eusko Jarlaritzako Liburutegi Zerbitzua.

Era berean, "La dimensión del cambio: usuarios, servicios y profesionales" izenburupean egin ziren, azaroaren 20 eta 21ean, Madril n dagoen Biblioteca Nacional-ean, X Jornadas de Gestión de la Información jardunaldiak. **Liburutegi Zerbitzuak euskal ondare digitalaren artxibo elektronikoa** aurkeztu zuen.

Jardunaldi hauen amaiera ekitaldian, Luis Landero idazleak, **III PREMIO NACIONAL SEDIC A LA CALIDAD E INNOVACIÓN** delako saria eman zuen. Aurten, landa-liburutegiak egunero burutzen duten lana goraiatu nahi izan da publikoki. Lehenengo saria, Castropoleko "Menéndez y Pelayo" liburutegiarentzat izan zen. Aipamen berezien artean, José Angelek Elciegoko Udal Liburutegiko (Araba) zerbitzuen emate eta hedapenean burututako lana azpimarratu beharra dago.